

Jimeno Jurioaren nortasuna hitzetan

PENTSAMENDUA. Herriko zaharregandik jaso zuen Nafarroa barrutik ezagutzeko grina, eta bizitza osoa egin du horretan, erakusten, historikoki Nafarroa euskalduna izan dela

Amagoia Mujika | DONOSTIA

Kultura eta hizkuntza bere pentsamenduaren ardatz dira, historia ikerketaren arrazoi. Haren gale-
ra neurri handi batean ezjakinek eta jakin nahi izan ez dutenek eragin dutela zioen. Berreskuratzeko giltza, berriz, hortxe dagoela uste zuen: ezagutzan.

ARTAXOA

«Apeztegian nintzela apaiz batek ene herriaz lan bat egitera gonbidatu ninduen. Ordu arte inoiz ez nintzen gai hauetaz kezkatu —euskara, historia, ohiturak eta kultura—, baina ohitura herrikoia ezagutzea biziki maite nuen. Artaxoari buruzko datuak jasotzeko aitona-
amona asko elkarrizketatu nituen, eta datu horiek argitaratzerako haiek denak hilda zeuden. Ene buruari erran nion: 'Aizak, hi, mundu hura bazihoak'. Nafarroa ezagutzeko grina piztu zidan Artaxoak».

KULTURA

«Bere nortasunaz eta kulturaz

kontzientzia duen herriak haren alde borrokatuko du, eta kulturaren altzorra hizkuntza da. Hizkuntza zaindu behar dugu, eta gure zaharren pentsamendua jasoz daukagun aberastasunaren kontzientzia hartu».

PENA HANDI BAT

«Hasieran euskal eremuan ez nintzen sartu, errespetu ikargarri handiz, zeren eta ezin bainuen han sartu euskaraz jakin gabe. Inoiz ez da berandu, baina sekulako aldea dago umetan ikasi edo burmuinak sarraila botata duenean. Garrantzitsuenak, ordea, saiatzea da. Gaztaro-
ko mirarira itzultzea izan zen, baina pena izugarria dut ez dudalako lortu benetan euskalduntzea. Burua harriak baino gogorragoa daukat».

EUSKARA BATUA

«Historikoki ez da egon idazki ofizialik. Zergatik? Erromatar garaitik euskaldunek ez zutelako kode grafikorik bere hizkuntzarako, eta atzeritarrek euren erabiltzen zutelako. Etxepare-
reren garaitik euskaraz idatzi

dutenek beti irrikatu dituzte arau horiek, eta ez dira iritsi Euskaltzaindia izan arte. Euskarak arau horiek izan balitu, ez zukeen izango izan duen atzerakada».

IDEOLOGIA

«Nafarroa aurrerakoiarekin amesten dut. Horregatik uste dut ezin diola muzin egin daukan aberastasun handienari, euskal kulturari. Tamalez neurri ofizialek eta mugek ez dute laguntzen. Historikoki euskaldunok elkarrekin egon nahi izan dugu. Nafarroa ezberdina da, baina ezberdintasuna aberastasuna da, eta batura indarra».

POLITIKOAK

«Egungo egoera politikoarekin ez da berreskurapen lasaia emanen. Jendeak euskara berriro nafar hizkuntzatzat har dezan makina lan egin behar da, eta egungo politikariekin jai daukagu, Nafarroan bederen».

EZAGUTZA

«Kultura berreskuratzeko modurik onena hura ezagutzen



JESUS DIGES / EFE

HAMAIIKA LANETATIK BAT AURKEZTEN. *Puente la Reina. Confluencia de rutas jacobinas. Idaztea zuen gogoko, ez ordea idatzitakoak publikoan aurkeztea. Eginbehar neke*



MIKEL UHARTE

EUSKARARI BAI. Enrique Zelaia, Jose Mari Satrustegi eta Pedro Miguel Etxenikerekin, *Bai Euskarari* atxikimendua agertzeko unean.

www.kilometroak.com

urriaren 6an urretxu-zumarragara

nola heldu

trenet

Renfe tren zerbitzu berezia:
IRUN-ZUMARRAGA-IRUN
Ordu puntatan trenak 12 minuturo
BRINKOLA-ZUMARRAGA-BRINKOLA
Trenak 20 minuturo



Renfe azken trenak:
ZUMARRAGA-IRUN 21:45ean
ZUMARRAGA-BRINKOLA 21:37an

autobusez

Euskotren zerbitzu berezia:
ZUMAIA-ZUMARRAGA
Etengabeko autobus zerbitzua

kotxez

Legazpiko aparkalekueetatik
trenak 20 minuturo.
Azkoitia eta Ezkio-Itsasoko
aparkalekueetatik etengabeko
autobus zerbitzua. Itzulerako
azken autobusa 20:00etan



kilometroak 2002

**elkarren
beharrean**



**Bazkaltzeko
aukera
ezin hobea**

- Ederrena Pilotalekuan
Sagardotegi menua
- Aldiri Kiraldegian
Menu berezia
- eta Antion
Menu herrikoa

Txartelak bertan eros ditzakezu



**kmk/arropa
erosteko
modua**

- 1. gunean: Ikastola
- 4. gunean: Etxaburu
- 5. gunean:
Areizaga-Kalebarren plaza
- 6. gunean:
Renfeko trintxeran
- 8. gunean: Legazpi Plazan

ERABIL DEZAGUN
GARRAIO PUBLIKOA
GUZTIONTZAT
EROSIENA

URRET-XU-ZUMARRAGA
IKASTOLA

Ikastolen Elkartea